



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Le buone madri

DISNEY +

“Ndrangheta”: Italia hegoaldeko Calabriako erakunde kriminal bat da. Siziliako mafia edo Cosa Nostraren eta Napoliko Camorra erakundeen nolabaiteko parekidea litzateke. Euskarara ekarrita, gizotasun adoretza bezala uler genezake. Benetako gertaeretan oinarritzen den telesail italiar honek klan horretako kide diren hiru emakumeren istorioa azaltzen du: emakumeek Alessandra Cerreti izeneko fiskalarekin bat egingo dute, inperio kriminal hori barrutik akabatzen. Hiru emakumeren istorio zirraragarria da “Le buone madri” (Ama onak), eta mafiaren mundu patriarkala emakumeen ikuspegitik azaltzen du. Tentsioz bete, iluna eta interpretazio sendoez lagundutako telesaila da. Poliziaren eta mafiaren arteko gerra azaldu baino, familia horietan sakontzen du, baina ez ditu mafiako klanak osatzen dituzten gizonezkoen ohiko traizioak, borrokak eta mendekuak azaltzen, gizon horiek klan horietako emaku-

Oporretan ikusteko 2023ko telesail laburrak

Hamar urte inguru dira telesail gomendioak ematen hasi nintzela, eta bide desberdinetatik zuengandik jasotzen iruzkinei esker ondoriozta dezaket, argi eta garbi, gomendioen zerrenda-proposamenak bereziki oporretan zaudetenean eskertzen dituzuela. Baliteke bidaia luzerik egin behar ez izatea, baina oporrak igaro behar dituzuen kokaleku horretan -etxean bertan agian-, afalostean lasai-lasai ikusteko zerbaiten bila ariko zarete agian. Ez duzue telesail luzerik nahi, oporrek irauten duten denbora-tarte horretan hasi eta amaitzeko moduko zerbait nahi duzue, eta telesaila berria bada hobe, ezta? Honatx 2023ko telesail labur interesgarri batzuk:

meei eragindako guztia baik. Hautemangarria den unibertsoa da mafiarena, bereziki zineman eta telebistan sarri ikusi dugulako (“Godfather”, “Gomorra”, “Goodfellas”, “Romanzo criminale”...), baina telesail honek mundu hori beharrezkoa den beste ikuspegi batetik aztertzeak aukera ematen du: feminoa eta feminista. Mafiari buruzko fikzioetan -beste askotan bezala- emakumeak izan baitira ahaztutakoak.

Beef

NETFLIX

Beef hitzak ingelesez haragia esan nahi duen arren, azken urteotan beste erabilera batekin erabiltzen den terminoa da. Berezi hip-hop edo trap munduan zabaldu den hitza da, eta musikaren industrian bi artisten arteko eztabaida edo liskarra adierazteko erabiltzen da. C. Tangana vs Los Chikos del Maíz, Katy Perry vs. Taylor Swift edo, urrutira joan

gabe, orain gutxi gurean gertatu zen Kai Nakai eta Chill Mafiaren artekoa.

Beef hitza, kasu honetan, ikus-entzunezkoen mundura eramanez, gomendatzen ari naizen telesailari izenburua emateko. Zergatik? Bi protagonista zoragarrien -Steven Yeun eta Ali Wong, Amy Lau eta Danny Cho gorpuzten- arteko liskarrari izenburu ezin aproposagoa eskaini diotelako. Borroka, liskarra, eztabaida... hori da telesailaren metxa piztuko duen sua.

Bi ezezagunen arteko trafikorabehera-istilu batek bien alderdirik ilunena azaleratuko duen gatazka bat sortuko du. Danny Cho bere kabuz lan egiten duen gizona da, kontratatzen duten etxeetan era guztietako konponketak egiten dituen. Bizitza nahiko bakartia eta prekarioa dauka. Amy Lau, aldiz, arrakasta handiko enpresaria da, diruduna, eta ustez behintzat, ametsetako bizitza duen emakumea. Txikikeria dirudien gorabehera arrunt hori tsunami bat eragingo duen ur tanta izango da. Bi pertsona oso desberdinek bizi duten krisi existentzialari buruzko kontakizuna da, eta arazo pertsonal hori da, gertaera “txiki” horrekin uztartuz, geldiezina izango den eztabaida nola eragiten duen azaltzen duena.

Era oso desberdinetan bada ere, gizarte-klaseen bi aldeetan sufritzen dena erakusten du telesailak. Aparta iruditu zait: umore beltzez jositako telesail bizia, nahiko basatia, oso entretenigarria eta bisualki nortasun handikoa. Hori guztia, eta gainera, gizarte kritika zabalteko era oso burutsua landu dutela uste dut.





Hijack

APPLE TV+

Zazpi ataletan banatuta dagoen akziozko thriller dramatikoa honek (ia) denbora errealean azaltzen ditu ekintza guztiak. Dubaitik Londresera doan hegazkin baten bahiketari buruzko istorioa da honakoa. Zazpi ordu irauten dituen hegaldia da, eta telesailak zazpi ordu irauten ditu. Pertsonaia ugari dauden arren, protagonista nagusia Idris Elba aktore ezagunak gorpuzten duen Sam da, bidaiariak hegalditik salbatzeko bere abilezia eta adimena erabiliko duen “negozio-gizon” misterioitsua. Ez da urteko telesaila inondik inora ere, eta ez nuke esango telesail bikaina denik ere, baina genero honetako proposamenak maite badituzu, hemen osagarri guztiak topatuko dituzu. Akatsak dituen telesaila da –gidoitik hasita, adibidez–, eta sinesgaitzak diren hainbat egoeraz josita dago, baina udan gozatzeko telesail aproposa iruditzen zait; oso entretenigarria delako, bizia eta denbora-pasa paregabea.

Division Palermo

NETFLIX

Inklusibitatea fikzioan txertatzea gehien eztabaidatzen den gaietako bat izaten ari da azken

boladan; horregatik, gai hori ezbaian jartzen duen telesaila sortzearen ideia bikaina iruditzen zait. Buenos Aires hiriko poliziaren irudi kaskarra garbitzeko asmoz, beste azpitalde bat sortzea erabakitzen du gobernuak, “Division Palermo” izeneko. Gutxiengo diskriminatuak osatutako taldea da. Hiriko guardia inklusibo bat, segurtasun-indarren irudia hobetzeko marketin-eragiketaren gisa. Umore beltza, deserosoa eta batez ere lotsagabea erabiliz, hori da “Division Palermo”-k planteatzen duen gatazka nagusia. Felipe Rozenfeld izeneko gaztea da protagonista; bikotekideak utzi egin du berriki, eta gainera, lanetik kaleratu egin dute. Hori gutxi ez, eta egun horretan bertan lapurreta bat pairatuko du; polizia-etxera lapurretagatik salaketa bat egitera joan den unean, ordea, “Division Palermo” taldearen



hautagaia dela uste dute bertakoek, eta kontratatatu egingo dute. Kolektibo bakar bat ere iraindu gabe uzten ez duen telesail zirikatzailea da.

Best Interests

BBC

Une honetan Hego Euskal Herrian inongo plataforma digitala ez dagoen arren, aurreten gehien hunkitu nauen proposamena partekatzera dator. BBC-k ekoitzia, lau atalez osaturiko miniserie gogor honek, bere bi protagonista nagusien antzezpen lan bikainez baliatuz (Michael Sheen eta Sharon Horgan), eztabaida sutuak eragin ditzakeen gaiari helden dio.

Bi aktoreek Nicci eta Andrew gorpuzten dituzte, 17 urteko Katie eta 12 urte inguruko Marnie izeneko gazteen gurasoak. Katie gaixotasun neuro-muskular batekin jaio da; jaio-tzen den unean, medikuek etorkizun nahiko beltza izango duela aurreikusten dute, apurka bizi kalitatea murriztu eta osasunak, oro har, okerre-ara egingo baitu. Istorioak iraganera eta etorkizunera jauzi txikiak egiten dituen arren,

kontakizun nagusia Katiek 12 urte inguru dituen giro-tzen da, gaixotasunaren unerik latzenean, zehazki. Tes-tuinguru horretan, hartu beharreko erabaki latz eta dramatikoa baten eraginez, eta familia egitura pitzatu eta desegina tarteko, epaiketa dramatikoa batekin amaituko da telesaila.

Swarm

PRIME VIDEO

Donald «Childish Gambino» Glover-en (Atlanta) ekoizpen berria da. “Copenhagen Cowboy”-ekin batera, 2023ko telesailik deskribaezinena eta ausartena iruditzen zait. Lau dira telesail horrekin bereziki partekatzen dituen ezaugarriak: atmosfera itogarria duen estetika txundigarria, biolentzia maila nahiko altua, emakumezko pertsonaia ezohikoa eta oso berezia, eta batez ere, guztiz nitxozkoa den generozko proposamena dela. Protagonista Dre izeneko neska da, Ni’Jah izeneko pop izar batekin guztiz obsesionatuta bizi den gaztea. Ni’Jah afro-amerikarra da, eta esango nuke sortzaileek Beyoncé-ri egindako keinu nabarmen-





na dela. Ahizparen ustekabeko heriotzak eta musikari horreki-ko duen obsesio neurrigabeak norabide oso ilunera zuzendu-ko dute neska, eta hilketez josi-tako bidaia bat egitera bultza-tuko dute. Gutxika ezagutuko dugun iragan zaila medio, nes-karen egonkortasun emozional ahula erabat hautsiko da, eta Ni’Jah-ren irudian are gehiago babesten hasiko da. Ez pentsa, ordea, Dre ohiko *serial-killer* horietako bat denik, biktima nagusiak sare sozialetan topa-tzen dituen Ni’Jah-ren haterrak baitira. Pertsona ospetsuek sor-tzen duten fanatismoari buruz-ko telesail basatia eta desero-soa iruditu zait. Atal batzuk irregularragoak iruditu zaizki-dan arren, zenbat eskertzen di-tudan era honetako proposa-men ausartak eta originalak.

Somewhere Boy

FILMIN

BAFTA sarietan lau izendapen jaso zituen telesail honek. Har-pidetza bat justifikatzen duen telesaila da. Danny da protago-nista nagusia. Umea zen ama auto-istripu batean hil zenean. Oinazeak gaingiduta eta hau ere galtzeko beldurrez, umea etxean giltzapetuta uztea eraba-kiko du aitak. Kanpoan muns-troak daudela, mundua arrisku-tsua dela... haurraren burua

beldurrez eta izu-ikaraz betetze-ko helburuz, etxetik sekula ez ateratzeko araua ezarri dio. Ha-la, telesaila hasierako haur hori 18 urteko nerabea denean giro-tzen da, eta bere aitak bere bu-ruaz beste egiten duen unean. Danny gaztea bere izeba Sueren etxean hartu dute. Amaitu dira aitaren isolamendua eta gehie-gizko babesa, baina benetako erronka orain hasiko da bera-rentzat. Pixkanaka, ia estralur-tar bat balitz bezala, Dannyk kanpoko mundua deskubritu beharko du. Argumentua iraku-rri ostean, ez pentsa misterioz beteriko thriller dramatiko bat ikusiko duzunik, telesailaren helburua eta tonua bestelakoak baitira. Gogorra da oso, eta bai-ta hunkigarria ere, baina berezi-ki maitasunari, doluari eta uka-zioari buruzko erretratu zoragarria da. Lewis Gribben-en antzezpen lan itzelaren bidez, kanpoko mundutik ezagutzen ez dituen gauzen aurrean duen nahasmen orokorra ezin hobe-ki islatzen da telesailean.

Questo mondo non mi rendera cattivo

NETFLIX

2021. urtean Zerocalcare komi-kigile italiarrak “Strappare lun-go i bordi” telesail zoragarria es-treinatu zuen. Komikigilearen bizipenetan oinarritzen den



helduentzako animaziozko tele-saila zen hura. Gizarte-kon-tzientzia oso sakona duen Erro-mako marrazkilari gazte batek, kontzientziatzat armadilo erral-doi bat duenak, tartean pertso-naia desberdinak sartzen direla-rik, bere bizitza-ibilbideaz eta maitasunaz hausnartzen du, hi-ritik kanpo bidaiatzen ari den bitartean. 2023an “Questo mondo non mi rendera cattivo”-rekin itzuli da. Protagonista eta unibertso bera –armadiloa barne, noski–, baina istorio eta egoera desberdinekin. Gazte bat bere jaioterrira itzultzen da eta ohartzen da jada ez duela eza-gutzen, ezer ez dela lehen beza-lakoa. Zerocalcarek, bera lagun-tzeko prest dagoen arren, hainbat zalantza eta dilemari aurre egin beharko die.

Auzoan aterpe bat ireki dute, etorkin arabiar eta musulma-

nentzat bereziki, eta bizilagun batzuei ez zaie gehiegi gusta-tzen. Honek gatazka eragingo du bertan. 2021eko telesailearen mezu nagusian, garun-osasu-na edo depresioa bezalako gaiak jorratzen ziren; bada, ho-netan, ultraeskuinaren goraka-daz dihardu, eta egiten duguna egiten dugula, mundua kaka bat dela eta pikutara doala dio.

Ia mirarizkoa iruditzen zait plataforma digitaletako ditxo-sozko algoritmoek guztia mar-katzen duten garaiotan, eta ekoizpenak gero eta errepika-korrangoak direnean, nortasun eta arima hain berezia duten era honetako harribitxiak azal-tzea. Nortasun horren erantzule nagusia istorioa bera den arren, hots, gidoiak duen inda-rra eta komikigile italiarrak erabili duen gizarte kritika bor-titza, ezin daiteke albo batera utzi serie honek duen alderdi tekniko eta artistiko bikaina.

Animazio-estilo aldetik duen sinpletasun horrek, mezu na-gusiari garrantzi handia ema-ten laguntzen dio, eta gidoia edozein pertsonak identifika-tuta sentitzeko moduko egoe-rez beteta dago. Girotze lana biribiltzeko eta garaiko esen-tzia hori ezin hobeto pantaila-ratzeko helburuz, bigarren te-lesail honetan ere soinu bandak indar berezia du; The Clash, The Cure, Counting Crows, Oasis eta Lou Reed be-zalako artisten kanta ezagu-nak aurki daitezke.

Animazioa mezu garrantzi-tsuak zabaltzeko erreminta oso eraginkorra izan daite-keela frogatzen duen uniber-tsoa sortu du Zerocalcarek. Umorea helduleku gisa erabi-liz, ekoizpen oso irudimen-tsua sortu du oraingoan ere, eta gogoeta sorta zoragarriez baliatuz, hunkiberatasunera-ko tartea ere eskaintzen du.

